



# Kirol-ekosistema eraldatzen duen lidergoa: eragin handiko komunikazioa, talentua eta aukera- berdintasuna



Aldaketa bultzatzeko tresnak eta esperientziak

**Ira. 01 - Ira. 02 2026**

**Kod. S02-26**

**Mod.:**

Online zuzenean

**Edizioa**

2026

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Ira. 01 - Ira. 02 2026

**Kokalekua**

Miramar Jauregia eta online zuzenean (Zoom)

**Hizkuntzak**

Gaztelera Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Webgunea**

<http://www.tximistfoundation.org>

# Antolakuntza Batzordea



# Azalpena

Uda Ikastaro honek kirolaren, kudeaketaren, komunikazioaren eta erakunde-arloaren profesionali zuzendutako hausnarketa eta ekintza gunea proposatzen du. Jarduerak lidergoa egiturazko eraldaketarako motor gisa lantzen du, erakundeek kultura inklusiboagoak, bidezkoagoak eta jasangarriagoak nola sor ditzaketen aztertuz. Genero ikuspegi zeharkako batetik, dauden desberdintasunak, talentuaren garapena mugatzen duten oztopoak eta kirol ekosistemako maila guztietan aukera-berdintasuna bermatzeko estrategiak aztertuko dira.

Jardunaldietan zehar, lidergo inklusiboari, eragin handiko komunikazioari, erabaki-hartzeari, gobernantzari, talentu anitzaren ikusgarritasunari eta egitura antolatzaile erantzunkideak eraikitzeari lotutako tresna praktikoak eta benetako esperientziak landuko dira. Ikastaroak hausnarketa estrategikoa eta aplikazio praktikoa uztartuko ditu, profesionalen arteko elkarrizketa sustatuz eta klub, federazio, komunikabide eta kirol erakundeetan aldaketa eraginkorrek bultzatzeko sareak sendotuz.

Ikastaroa bi arratsaldeetan eta online egingo da, teoria eta praktika uztartuz, parte-hartze eta esperientzia ikuspegia erabiliz.

Saioen antolaketa:

- Hitzaldi interaktiboak, lidergo, kudeaketa, komunikazio eta aukera-berdintasunaren arloko profesionalak emandakoak.
- Tailer praktikoak, lidergo inklusibo eta eragin handiko komunikazio tresnak aplikatzeko.
- Benetako kasuen azterketa, klub, federazio eta kirol-erakundeetako esperientziak modu kritikoan lantzeko.
- Debate eta networking espazioak, parte-hartzaileen arteko elkarreragina eta ideien trukea sustatzeko.

Parte-hartzaileek tresna eta estrategiak eskuratzea da helburua, beren testuinguru profesionaletan aldaketa inklusiboak bultzatzeko, oinarritik hasi eta kirolaren kudeaketa estrategikora arte.

## Helburuak

Kirolaren maila guztietan aukera-berdintasuna sustatzea.

Aldaketa inklusiboak lideratzeko tresna praktikoak eskaintzea .

Eraldaketaren palanka gisa eragin handiko komunikazioa bultzatzea.

Kirol egitura bidezko eta jasangarriak eraikitzen aurrera egitea.

Lankidetzeta eta sare profesionalak sustatzea.

# Programa

## 2026-09-01

17:00 - 17:15 Erregistroa

---

17:15 - 17:30 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

**Aintzane Encinas Gomez** | Tximist Fundazioa - PresidentaHizkuntza: español

---

17:30 - 18:30 “Gestión Deportiva”

Desafíos y Oportunidades

Desafíos y Oportunidades

**Ainara Manterola Ikutza** | Zuhegan - CEOHizkuntza: euskara

---

18:30 - 19:30 “Liderazgo Transformacional”

Inteligencia emocional aplicada al deporte

**Aintzane Encinas Gomez** | Tximist Fundazioa - PresidentaHizkuntza: español

**Yon Berastegui Martinez** | EHU - UPV - Doctor en PsicologíaHizkuntza: español

---

19:30 - 20:00 “Compartir para competir”

**Aintzane Encinas Gomez** | Tximist Fundazioa - PresidentaHizkuntza: español

---

## 2026-09-02

17:00 - 18:30 “Comunicación Efectiva para Líderes”

Herramientas para la Gestión de Equipos y Proyectos Deportivos

**Eli Sarasola Nieto** | Fundación Tximist - Directora de comunicaciónHizkuntza: español

---

18:30 - 19:30 “Innovación y Gestión en el Deporte”

Del deporte base al alto rendimiento

**Aintzane Encinas Gomez** | Tximist Fundazioa - PresidentaHizkuntza: español

---

19:30 - 20:00 “Herramientas de líder, gestión de problemas”

**Aintzane Encinas Gomez** | Tximist Fundazioa - PresidentaHizkuntza: español

---

## Zuzendaritza



### **Aintzane Encinas Gomez**

TXIMIST FUNDAZIOA, PRESIDENT

---

20 urte baino gehiagoko esperientzia duen lider dinamikoa, genero berdintasuna eta kirolaren bidezko ahalduntzea sustatzeko grina eta esperientzia uztartzen ditu. Tximist Fundazioa zuzentzen du, sare globalak eta emakumeen lidergoa sustatzen dituena. Nire ikuspegi eta lidergo inklusiboa zurekin partekatzeko irrikan nago.

## Irakasleak



### **Yon Berastegui Martinez**

---

Esku-hartze Psikopedagogikoan doktorea, Psikopedagogian lizentziatua eta Gorputz Hezkuntzako Irakasletzan diplomatua. 2010az geroztik, Euskal Herriko Unibertsitateko HEFA (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea) fakultatean ari da irakasle. Psikopedagogia, Hezkuntza Soziopertsonala eta Hezkuntzan Esku Hartzeko Programak irakatsi ditu. Gaur egun, eskolak ematen ditu Gizarte Hezkuntzako Graduan eta Bigarren Hezkuntzako Irakasletzako Masterrean, laguntzaile doktore gisa, Hezkuntza Zientzien Sailean. Bartzelonako eta Lleidako Unibertsitateko GROPKo (Orientabide Psikopedagogikoko Recerca Taldea) kide aktiboa da 2016tik, eta EHUko GANDERE ikerketa-taldeko (Genero sozializazioa eta Hezkuntza testuinguruak) kidea 2018tik.



### **Aintzane Encinas Gomez**

TXIMIST FUNDAZIOA, PRESIDENT

---

20 urte baino gehiagoko esperientzia duen lider dinamikoa, genero berdintasuna eta kirolaren bidezko ahalduntzea sustatzeko grina eta esperientzia uztartzen ditu. Tximist Fundazioa zuzentzen du, sare globalak eta emakumeen lidergoa sustatzen dituen. Nire ikuspegi eta lidergo inklusiboa zurekin partekatzeko irrikan nago.



### **Ainara Manterola Ikutza**

---

Zuheganen sortzailea eta bazkidea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduatua, mugimenduaren kalitatean, indar-entrenamenduan eta lesioen errekuerazioan espezializatua. Lehen mailako futbolari ohia eta nazioartekoa, bai futbolari gisa, bai prestatzaile fisiko gisa. Markelen ama.



## **Eli Sarasola Nieto**

VANTAGE

---

Vantageko emakumezkoen futbol koordinatzailea. Futbolarien garapen indibidualean aditua, pertzepzioari begira. Exercise Science B.Sko graduatua, College of Charleston, Estatu Batuak. Futbolari profesional ohia nazioartean.

# Matrikula prezioak

ONLINE ZUZENEAN	2026-09-01 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
<a href="#">Matrikula murriztua orokorra</a>	74,00 EUR
<a href="#">Matrikula exentzia</a>	61,00 EUR
<a href="#">Gazte tarifa</a>	25,00 EUR
<a href="#">Ikastaroak guztiontzat</a>	74,00 EUR
<a href="#">Elkar</a>	74,00 EUR
<a href="#">Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide</a>	74,00 EUR

# **Kokalekua**

**Miramar Jauregia eta online zuzenean (Zoom)**

Gipuzkoa